# JARDUEREN EGITARAUA

## 26→27

# Añanako Kuadrilla



Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola

laia.araba.eus

Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

araba álava
foru aldundia diputación foral

Laia

# LAIA Añana

## INFORMAZIOA, KONTAKTUA ETA IZEN-EMATEA


Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

699 303 892

igualdad@cuadrilladeanana.eus

Foruen plaza, 11. 01213 Ribabellosa, Araba

www.cuadrilladeanana.eus





**Izena eman behar den jardueretarako epea:**
ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Ludoteka eta garraio zerbitzua:**
jarduera hasi baino hiru egun lehenagora arte

**GURE BULETIN DIGITALEAN IZENA EMAN LAIA.ARABA.EUS BIDEZ**

**#LAIAAñana**


Edukien Elaborazioa: Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

LAIAren Idazkaritza Teknikoa: Red Kuorum S.L — www.redkuorum.eus

Diseinua eta maketazioa: Labox — www.labox.es

Inprimaketa: Arabako Foru Aldundia

L.G.: LG G 492-2026

# Aurkibidea


LAIA Añana 2

Aurkibidea 3

Berdintasunak mugitzen gaitu! 5

LGTBIQ+fobiaren aurkako sarea Araban 7

Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen XXVII. Topaketa 9

Añanako Kuadrillaren Berdintasunaren aldeko IX. Topaketa 10

Berantevillako irakurketa kluba 12

AñanaFEMprende 13

Tailerra 14

Zinegoak 15

Berantevillako emakumeen jakintzak eta zaporeak 16

Indarkeria matxistaren aurkako IX. Martxa 17

«Lur gainean, itzalpean» 18

Lantarongo emakumeen jakintzak eta zaporeak 19

Nola egiten gara gizon? Zer da gizon izatea? 20

Berantevillako arropa garbitzaileak:
memoria, lana eta komunitate bizitza 21

Erriberabeitiako emakumeen jakintzak eta zaporeak 22

Emakume nagusiei zuzendutako zahartze
aktibo eta ahalduntzerako talde tailerra 23

Zanbranako emakumeen jakintzak eta zaporeak 24

Zinegoak 25

Emakumeen memoriak ere Araba eraikitzen du 26

# Añanako
## *Kuadrilla*






## Berdintasunak mugitzen gaitu!

Eusten duten sareak, zeharkatzen gaituzten zaintzak, memoria partekatua, belaunaldiz belaunaldi igarotzen diren jakintzak, sormena, parte-hartzea eta landa eremuko emakumeen indarra... Añanako Kuadrillan berdintasuna kolektibotik eraikitzen jarraitzen dugu, aldaketa sakonenak elkar aurkitzen, elkar entzuten eta elkarrekin ibiltzen garenean sortzen direla sinetsita.

Aurten **Berdintasunaren aldeko X. Topaketa** ospatuko dugu, emakumeen sareei —elkarlaguntzarako, ikaskuntzarako, parte-hartzerako eta gizarte eraldaketarako gune gisa— eskainitako edizio berezia. Esperientziak partekatzeko, zaintzen balioa aitortzeko eta gure eskualdea lurralde berdinzaleagoa egiten duten loturak sendotzeko jardunaldia izango da.

AñanaFEMprendek elkar laguntzen, ezagutzak trukatzen eta aukera berriak sortzen dituzten emakume ekintzaileen komunitate gisa hazten jarraitzen du. Ideiak proiektu bihurtzen diren eta topaketa bakoitzak landa eremuko emakumeen konfiantza, lankidetza eta lidergoa indartzen dituen gunea.

**Jakintzak eta Zaporeak** proiektuek eskualdean zabaltzen jarraitzen dute, gure herrien memoria berreskuratuz eta hainbat emakumek belaunaldiz belaunaldi transmititu dituzten ezagutzak, esperientziak eta bizimoduak balioetsiz. Izan ere, jakintza horiek gordetzea ere etorkizuna eraikitzea baita.

Egitarau honek, gainera, hainbat begiradatatik hausnartzera gonbidatzen gaituzten proposamenak biltzen ditu: menopausiari eta zahartze aktiboari buruzko tailerrak, argazkigintza, irakurketa klub feministak, LGTBIQ+ ikuspegidun zinema, arropa garbitzaileen memoriari buruzko topaketak, gizonei zuzendutako guneak maskulinitateak birpentsatzeko, eta berdintasuna eskualdeko txoko guztietara hurbiltzen jarraitzen duten jarduerak.

Eta, urtero bezala, indarkeria matxistaren aurkako gure konpromisoa berritzen dugu. Ribabellosa eta Lantaron arteko IX. Martxak berriz elkartuko gaitu, Ana eta indarkeria honen biktima diren emakume guztiak gogoratzeko, mezu argi bat berretsiz: emakume bat ere ez dago bakarrik, eta berdintasuna soilik izango da posible indarkeria mota oro irmoki gaitzetsiz.

Armiñondik Zanbranaraino sareak ehuntzen, jakintzak partekatzen eta komunitatea eraikitzen jarraitzen dugu. Izan ere, topaketa bakoitzak, elkarrizketa bakoitzak eta elkarrekin ematen dugun urrats bakoitzak Añanako Kuadrilla bidezkoagoa, berdinzaleagoa eta biziagoa sendotzen baitu.

**Tailerretan, topaketetan, kaleetan eta berdintasuna hazten jarraitzen duen gune horietan guztietan ikusiko dugu elkar!**


ERASO MATXISTARIK
GABEKO JAI ASKEAK
BELDUR BARIK
ASKEAK
POR UNAS FIESTAS LIBRES
DE AGRESIONES MACHISTAS
araba álava
foru aldundia diputación foral
Laia
Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Cuadrilla Montaña Alavesa
Arabako Errioxa
Rioja Alavesa
AIARALDEA KUADRILLA

## LGTBIQ+fobiaren aurkako sarea Araban

Lumagorri elkarteak Araban duen presentzia sendotu du, sexu-orientazioagatiko, genero identitateagatiko edo genero adierazpenagatiko diskriminazioa eta indarkeria errotik kentzeko helburuarekin, LGTBIQ+ pertsonen ahalduntze feminista sustatuz. Ikusguneen bidez —jaietako eta aisialdiko jardueretako informazio-guneak—, laguntza, entzutea eta baliabideak eskaini zaizkie LGTBIQ+fobiazko erasoen biktimei, errealitate hori lurraldean ikusarazten lagunduz. Aurrerapenak gorabehera, erronkek bere horretan diraute: diskriminazioa, ikusezintasuna edo gorroto delituak. Lumagorrik Arabako herrietan erreferentziazko pertsonen sarea sortzearen alde egiten du, gune seguruak eta indarkeriarik gabeak sustatuz. Erakundeen eta komunitatearen babesa funtsezkoa izan da.

**Arabako Foru Aldundiaren, jai batzordeen, udalen, administrazio batzarren, kolektiboen eta berdintasun teknikarien konpromisoa funtsezkoa izan da lan hau garatzeko.**

Egin dezagun Araba LGTBIQ+fobiarik gabeko lurraldea.





Arabako
Baserritar
Inguruko
**Emakumeen**
**Sarea**

**Red de**
**Mujeres**
del Medio
Rural de
Álava

## Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen XXVII. Topaketa

Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen XXVII. Topaketa ikasitakoa praktikan jartzeko, landa eremuko emakumeen papera ikusarazteko eta kolektiboki eraikitzen jarraitzeko gunea izango da. Aurreko topaketaren jarraipen gisa —landa eremuko emakumeen ekintzaileetzan zentratua—, aurten emakumeen lidergoan sakonduko dugu, ez soilik arlo ekonomiko edo enpresakoan, baita komunitate lider paperean ere.

Emakume askok beren herrietan egiten duten lana —askotan isilean— aitortu eta ikusaraztea da helburua: eguneroko bizitza sostengatzea, ekimenak bultzatzea eta gizarte kohesioa sortzea; eta belaunaldien arteko zubiak eraikitzea, adin desberdinetako emakumeak herrietan bizitza mantentzeko eta beren komunitateak zaintzeko helburu komunak batuta.

| | |
|---|---|
| Data eta ordutegia | **Urriak 31** |
| Tokia | Burgelu |
| Norentzat | Landa eremuko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Landa eremuko Emakumeen Sarea<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | **red@mujeresruralesalavesas.org**<br>**www.laia.araba.eus** webgunearen bidez, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Añanako Kuadrillaren Berdintasunaren aldeko IX. Topaketa

**Añanako Kuadrillaren Berdintasunaren aldeko IX. Topaketa** hausnarketarako, ospakizunerako eta aldarrikapen feministarako urteroko gunea da, eskualdeko emakume guztiei irekia. Bizipenak partekatzeko, aliantzak sortzeko eta gure borrokak eta lorpenak ikusarazteko tokia, kolektibotik gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoa elkarrekin eraikitzen jarraitzeko helburuarekin.

Bederatzigarren edizioa emakumeen sareetan zentratuko da, elkarlaguntzarako, jakintzen transmisiorako eta ekintza kolektiborako egitura moduan ulertuta, ikuspegi feminista, komunitario eta intersekzionaletik. Sare horiek laguntza emozionalean, desberdintasunen aurkako antolakuntzan, parte-hartze guneak sortzean eta landa lurraldeetako dinamizazio sozialean duten papera agerian jartzen duten tokiko esperientziak ikusaraziko dira.

Topaketak sentsibilizazio puntuala gainditu nahi du, denboran zehar iraunkorrak diren prozesu kolektiboak sendotuz eta emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuz eskualde mailan. Bere udalez gaindiko izaerak baliabideak optimizatzen ditu eta udalerrien arteko koordinazioa errazten du, berdintasun politiken ikuspegi komun bati lagunduz.

Helburu zehatzen artean nabarmentzen dira: dauden sareak eta lurraldeari egiten dizkioten ekarpenak ikusaraztea; zaintzei buruz hausnartzeko guneak sortzea; esperientzien eta jardunbide egokien trukea sustatzea; sare eta proiektu berrien txertatzea bultzatzea; eta berdintasun arloko eskualde koordinazioa indartzea.



**EGITARAUA:**

Topaketa harrera instituzional batekin hasiko da, Arabako Foru Aldundiko, Añanako Kuadrillako eta udalerri anfitrioiko ordezkarien eskutik, bederatzigarren edizioa eta bere eskualde ikuspegia testuinguruan jarriz. Ondoren, Dora Gálvezen esku hitzaldi marko bat eskainiko da, «**Zaintzak emakumeen sareetan: indibidualetik kolektibora**» izenekoa, zaintzak gizarte eta politika praktika gisa jorratuko dituena, ordu bat eta ordu bat eta erdi arteko iraupenarekin, parte-hartzaileekin elkarrizketa gunea barne.

Ondoren, proiektuak aurkeztuko dira, standen edo mahai informatiboen bidez, Kuadrillako emakumeen sareek eta elkarteek beren lana aurkez dezaten, materialak parteka ditzaten eta sinergiak sor ditzaten. Aurreikusitako talde parte-hartzaileen artean daude Irakurketa Klub Feminista, AñanaFEMprende, emakumeen beste elkarte batzuk eta txertatzen diren sare berriak.

Topaketaren dinamizazioa eta gidaritza kazetari baten esku egongo da, jardunaldia gidatzeaz, blokeak errazteaz eta truke gunearen garapena laguntzeaz arduratuko dena.

| | |
|---|---|
| Data eta ordutegia | **Urriak 17, 2026**<br>Larunbata, 11:00etan |
| Tokia | Zambranako gizarte etxea |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Añanako Kuadrilla<br>Zanbranako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ema-tea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Berantevillako irakurketa kluba

Irakurketa klub feminista topaketa, hausnarketa eta eztabaida gunea da, non adin, prestakuntza maila, lanbide eta bizimodu desberdinetako emakumeak biltzen garen feminismoari buruz hitz egiteko. Eleberriak, saiakerak, iritzi artikuluak, poesiak... irakurtzen ditugu, eta liburuen edukiari buruzko gure iritzia besteen iritziekin osatzen dugu. Esperientziak partekatzeko eta feminismoari buruz ikasteko ere balio digu. Kluba benetako ahalduntze eta aberaste pertsonaleko gunea da guretzat. Eta onena da oso ondo pasatzen dugula.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Christina Werckmeister Lacarra**, Filologia Klasikoan lizentziatua, Genero Berdintasunean masterduna |
| Data eta ordutegia | **Urriak 5, azaroak 9 eta abenduak 14**<br>Astelehena, 18:00etan |
| Tokia | Berantevillako Udala |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Berantevillako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |





## AñanaFEMprende

### Añanako Kuadrillako emakume ekintzaileak

Añanako Kuadrillako emakume ekintzaileak eraldatzen eta konektatzen dituen sare organikoa gara. Zazpi urte dira dagoeneko topaketaz eta hausnarketaz emakume talde honek, modu esponentzialean hazten jarraitzen duena. AñanaFEMprende ahalduntze indibidual eta kolektiboko prozesua da, Berdintasun Zerbitzuak bultzatua eta Kuadrillan ekiteko gogoa duten edo ekintzaile diren emakumeei zuzendua.

**Batu taldera eta partekatu zure esperientzia!**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Garazi de Ayala** \| Laugarren saioa<br>**Mentxu Ramilo Araujo**, politologoa, EHUko Zientzia Politikoetan eta Administrazioan doktorea eta aktibista feminista \| Bosgarren saioa (itxierakoa) |
| Data eta ordutegia | **Iraila eta azaroa**<br>Informazio gehiago kartelean |
| Tokia | Informazio gehiago kartelean |
| Norentzat | Añanako Kuadrillan ekiteko gogoa duten edo ekintzaile diren emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

## Armiñón



# Tailerra

«Menopausia, neure burua entzuten»

«**Menopausia, neure burua entzuten**» tailerra emakume helduei zuzenduta dago eta menopausian eta sexualitatean zentratzen da, genero ikuspegitik. Bina orduko hiru saioko prestakuntza gisa planteatzen da, azaroan egingo direnak. Ekimenak emakumeei klimaterioko trantsizio aldia —menopausiaren aurreko eta ondorengo urteak hartzen dituena, eta aldaketa hormonal, fisiko eta emozionalez lagundua— modu kontziente eta positiboan jorratzeko tresnak eta ezagutzak eskaintzeko beharrari erantzuten dio.

Laburbilduz, tailer honek menopausiaren prozesua ikusarazten eta normalizatzen laguntzen du, genero ikuspegitik jorratuz, eta emakumeei autoezagutzarako eta ongizaterako tresnak ematen dizkie, etapa hori modu osasuntsu eta ahaldunduan igarotzeko.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Emaize** |
| Data eta ordutegia | **Azaroak 5, 12 eta 19**<br>18:00-20:00 |
| Tokia | Informazio gehiago kartelean |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Armiñongo Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |



Añanako Kuadrilla

## Zinegoak

### Film laburren emanaldia

**Zinegoak Hedapena** kultura proiektua da, LGTBIQ+ aniztasunean espezializatutako zinema eta ikus-entzunezko edukiak proposamen mota horietarako sarbide gutxiago duten herritarrengana hurbiltzea bilatzen duena. Film laburren, dokumentalen eta jaialdiak hautatutako beste lan batzuen emanaldiaren bidez, jarduerak sexu eta genero aniztasunaren errealitate desberdinen ikusaraztea, elkarrizketa eta hausnarketa sustatzen ditu. Ekimen honek zinema eta kultura tresna bihurtzen ditu kontzientzia sortzeko, inklusioa sustatzeko eta publiko desberdinen arteko esperientzia trukea errazteko.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Zinegoak Hedapena** |
| Data eta ordutegia | **Urriak 2**<br>18:00-20:00 |
| Tokia | Informazio gehiago kartelean |
| Norentzat | Udalerriko herritarrak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Armiñongo Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




# Berantevillako emakumeen jakintzak eta zaporeak

## Ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesua

«Berantevillako berdintasunaren aldeko jakintzak eta zaporeak» programaren arrakastaren ondoren, fase berri bat proposatzen da, udalerriko memoria kolektiboa, tokiko ezagutzak eta komunitate identitatea sendotzen jarraitzeko. «Nire herriko jakintzak eta zaporeak berreskuratzen» izenburupean, proiektuak bere ikuspegia zabaltzen du gastronomiarekin, naturarekin, tradizioekin, komunitate antolakuntzarekin eta kontzejuen memoriarekin lotutako herri jakintzak jaso eta balioesteko.

Ekimen honek tokiko jakintzen aitorpena, memoria kolektiboaren berreskurapena, komunitate ahalduntzea eta kultura ondare bizia belaunaldi berriei transmititzea indartu nahi ditu.

https://berantevillasaberes.blogspot.com

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Mentxu Ramilo Araujo**, politologoa, EHUko Zientzia Politikoetan eta Administrazioan doktorea eta aktibista feminista |
| Data eta ordutegia | **Informazio gehiago kartelean**<br>17:00etan |
| Tokia | Berantevillako Udala |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Berantevillako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 337 059 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |






## Indarkeria matxistaren aurkako IX. Martxa

Martxa Ribabellosako Udaletxeko plazatik Lantarongo kiroldegira

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da, eta bere jatorria desberdintasuna da. Bederatzi urte igaro dira gure auzokide **Anaren** feminizidiotik, eta martxa honekin **indarkeria matxistaren aurkako gure gaitzespen sutsuena aldarrikatu nahi dugu**, eta erail dituzten emakume guztiak gogoratu, baita haien seme-alabak, senitartekoak eta hurbileko pertsonak ere, indarkeria honen zuzeneko biktimak. Erakundeetatik **indarkeria matxista jasaten duten emakumeei helarazi nahi diegu ez daudela bakarrik, eta indarkeria matxistatik ateratzeko ibilbidean lagunduko dieten baliabideak eta zerbitzuak dituztela**.

| | |
|---|---|
| Data eta ordutegia | **Azaroak 22**<br>Igandea, 10:00etan |
| Tokia | Ribabellosako udaletxeko plazatik abiatuta |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lantarongo Udala<br>Erriberabeitiako Udala<br>Añanako Kuadrilla |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

## Langraiz Oka




## “Lur gainean, itzalpean”

Emakumeak lurraldean, kontakizunak eta islak

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Ana García Hermoso** |
| Data eta ordutegia | **irailak 9 eta 16**<br>Asteazkena, 17:30-19:00 |
| Tokia | Langraiz Okako gizarte zentroa |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Argazkilaritza Elkartea<br>Iruña Okako Udala - Langraiz<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




# Lantarongo emakumeen jakintzak eta zaporeak

## Ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesua

«**Lantarongo berdintasunaren aldeko jakintzak eta zaporeak**» proiektua, 2024an hasi eta 2025ean jarraipena izan zuena, udalerriko emakumeen jakintzak, esperientziak eta memoriak aitortu, balioetsi eta ikusarazteko ekimen gisa sendotzen da, ikuspegi feministatik. Gune honen bidez, aurreko belaunaldien ezagutzak berreskuratzen dira eta gazteenei transmititzea sustatzen da, identitate kolektiboa eta tokiko historiarekiko lotura indartuz.

Animatu eta parte hartu!

https://berantevillasaberes.blogspot.com

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Mentxu Ramilo Araujo**, politologoa, EHUko Zientzia Politikoetan eta Administrazioan doktorea eta aktibista feminista |
| Data eta ordutegia | **Urriak 23**<br>17:00etan |
| Tokia | Hurrengo topaketa: Berguenda |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lantarongo Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 337 059 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

Lantaron eta Ribabellosa



## Nola egiten gara gizon?
## Zer da gizon izatea?

Interesa duen edozein gizonentzat irekitako tailerrak dira, «gizon izateko» modu berri bat sustatzeko helburuarekin, gizarte berdinzale batera hurbiltzeko, emakumeei zein gizonei garapenerako eta askapenerako onurak ekarriz.

Irailetik aurrera taldea osatzen hasiko gara; animatu, deitu eta galdetu!

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Ongiz**, Berdintasunaren aldeko Elkartea |
| Data eta ordutegia | **Urria-azaroa**<br>Taldearen beharren arabera erabakiko da |
| Tokia | Lantaron eta Ribabellosa \| Udalerri bakoitzean bi saio egingo dira eta taldea bateratua izango da |
| Norentzat | Udalerrietako gizonak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lantarongo Udala<br>Erriberabeitiako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 337 059 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |





# Berantevillako arropa garbitzaileak: memoria, lana eta komunitate bizitza

Berantevilla inguruko arropa garbitzaileen figura Arabako landa eremuko memoria historikoaren parte da, eta eguneroko bizitzaren funtsezko elementua izan da duela gutxira arte. Garbitegi publikoetan egiten zuten lanak oinarrizko behar bati erantzuteaz gain, emakumeen arteko topaketa, harreman eta jakintza transmisioko guneak ere sortzen zituen, komunitate kohesioa indartuz.

Memoria hori berreskuratzeak lurraldearen ondare immaterialari egindako ekarpena aitortzea eta herrien antolakuntza sozialean izan zuen papera balioestea ahalbidetzen du.

Testuinguru horretan, Isabel Mellenek hitzaldi bat eskainiko du, arropa garbitzaileen garrantzi historiko eta soziala jorratuz, bai eta garbitegiek komunitate bizitzako eta memoria kolektiboko gune gisa duten garrantzia ere.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Isabel Mellén**, Álava Medieval |
| Data eta ordutegia | **Informazio gehiago kartelean** |
| Tokia | Pobes |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Berantevillako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |





## Erriberabeitiako emakumeen jakintzak eta zaporeak

### Ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesua

Herrietako bizitzari eta landa ingurune naturalari buruzko jakintzen transmisioa interesgarria da herrietan bizi diren belaunaldi gazteentzat. Landa eremuko emakumeen jakintzetan jakinduria, zientzia, ahizpatasuna, elkarlaguntza, ekonomia zirkularra, zaintzak, baliabideen kudeaketa eraginkorra... asko dago; horregatik garrantzitsua da landa eremuko emakumeen jakintzak balioestea, gure arbasoen eta parte-hartzaileen beren jakintzak eta zaporeak berreskuratzea eta parte-hartzaileen artean partekatzea. Gainera, partekatutako jakintza batzuk Interneten, blog batean, ikusgarri egongo dira.

https://berantevillasaberes.blogspot.com

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Mentxu Ramilo Araujo**, politologoa, EHUko Zientzia Politikoetan eta Administrazioan doktorea eta aktibista feminista |
| Data eta ordutegia | **Urriak 6** Ribabellosako Liburutegia (Centro Verde), 17:00etan<br>**Azaroak 30**, Tokia zehazteke |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Erriberabeitiako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 337 059 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |



Añana

## Emakume nagusiei zuzendutako zahartze aktibo eta ahalduntzerako talde tailerra

Tailer honetan autoestimua, kudeaketa emozionala, autozaintza fisiko/psikologiko/emozionala eta zure gorputzaren bidezko oinarri ederra landuko ditugu. Ariketa fisikoak, estimulaziokoak eta erlaxaziokoak egingo ditugu, hobeto sentitzeko. Norberaren eta emakumeok gure bizitzan zehar egin dugun zaintza lanaren balidazioa eta balioespena arakatuko ditugu. Erantzukidetasunari, komunikazioari eta tratu onei buruz hausnartuko dugu. Hori guztia genero ikuspegitik, eta taldea ahalduntze tresnarik onena izanik, gune seguru, laguntzaile, entzute eta konfiantzazkoan elkar aurkitzeko, gure bizitzak partekatzeko eta gaitasun emozionalak garatzeko, ahizpatasun gunea sortuz.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Ana Belen Hernández**, gizarte hezitzailea eta animatzailea |
| Data eta ordutegia | **Iraila-azaroa**<br>Asteartea arratsaldez |
| Tokia | Udaletxeko aretoa |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Añanako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 351 067 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |



Zambrana

# Zanbranako emakumeen jakintzak eta zaporeak

## Ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesua

Zanbranan lehen aldiz jartzen da abian ekimen hau, aurreko urteetan Kuadrillako beste udalerri batzuetan emaitza oso onak izan dituzten antzeko proiektuak kontuan hartuz. Lehen esperientzia honek lehen kontaktua izan nahi du, parte-hartzaileak herrietako eta landa eremuko bizitzari lotutako jakintzetara, esperientzietara eta ezagutzetara hurbiltzeko.

Jakintza horien transmisioa oso interesgarria da landa ingurunean bizi diren belaunaldi berrientzat. Landa eremuko emakumeek metatutako ezagutzetan jakinduria, zientzia, ahizpatasuna, elkarlaguntza, ekonomia zirkularra, zaintzak eta baliabideen kudeaketa eraginkorra aurkitzen ditugu; gaur egun ere erabat indarrean eta beharrezkoak diren balioak.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Mentxu Ramilo Araujo**, politologoa, EHUko Zientzia Politikoetan eta Administrazioan doktorea eta aktibista feminista |
| Data eta ordutegia | **Azaroak 6, 13 eta 20**<br>Ostirala arratsaldez |
| Tokia | Informazio gehiago kartelean |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Zambranako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 337 059 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |





## Zinegoak

Film laburren emanaldia

**Zinegoak Hedapena** kultura proiektua da, LGTBIQ+ aniztasunean espezializatutako zinema eta ikus-entzunezko edukiak proposamen mota horietarako sarbide gutxiago duten herritarrengana hurbiltzea bilatzen duena. Film laburren, dokumentalen eta jaialdiak hautatutako beste lan batzuen emanaldiaren bidez, jarduerak sexu- eta genero aniztasunaren errealitate desberdinen ikusaraztea, elkarrizketa eta hausnarketa sustatzen ditu. Ekimen honek zinema eta kultura tresna bihurtzen ditu kontzientzia sortzeko, inklusioa sustatzeko eta publiko desberdinen arteko esperientzia trukea errazteko.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Zinegoak Hedapena** |
| Data eta ordutegia | **Urriak 31** |
| Tokia | Informazio gehiago kartelean |
| Norentzat | Udalerriko herritarrak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Añanako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

## Emakumeen memoriak ere Araba eraikitzen du

2024tik, LAIA Arabak topaketa prozesu kolektibo bat bultzatzen du Arabako Kuadrilla guztietan, lurraldeko emakumeen memoria historikoa berreskuratu, partekatu eta balioesteko.

Gune horiek galdera hauek egitera gonbidatzen gaituzte: **zer istorio kontatu dira gure iraganari buruz, eta zein geratu dira kontakizun historikotik kanpo? Emakumeen memoria ikusaraztea zeregin kolektiboa da**.

Datozen hilabeteetan topaketa berriak ospatzen jarraituko dugu. **Parte hartzera eta hurrengo deialdiei adi egotera gonbidatzen zaitugu; LAIA Arabaren kanalen bidez argitaratuz joango gara**. Izan ere, partekatutako oroitzapen bakoitzak historia osoagoa, anitzagoa eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzen baitigu.




Laia

araba álava
foru aldundia diputación foral